



Arrosa, 2024ko martxoaren 2a

ARROSA & ST MARTIN D'ARROSA & ARROSA

e-mail : herria@arrosa.eus

Arrosako Herriko Etxea - 64780 - Maire de Saint-Martin-d'Arrossa - Tel : 05 59 37 72 69

Alkate anderea, Lagun agurgarriak,

2024ko urtarrilaren 25eko Herriko Kontseiluko bilkuraren kariatara, Arrosako zinegotziek aho batez onartu dute, Nafarroan eta Lizarrako meriendadean kokatua den Artazu zuen herria eta gure herriaren artean harremanak partekatzeko printzipioa.

Gutun honen bitartez, poztasun handiarekin segurtatzen dizuegu ondorioz gure erabakia.

Arrosa eta Artazurekin, urtez urte, emeki emeki, elkar trukaketa batzuk eraikiak izan daitezen ideiarekin engaiatu da.

Arrosako elkarte sarearekin harremanetan sartuko da eta ideia horiek ekintzetara gorpuztuak izan daitezen jakinean atxikiko ditu.

Bi herri hauek Nafarroan kokatuak izanki, segurki puntu komunak dituzte.

Ongi apuntatua daukagu ere elkartzeak hasiko zirela 2024ko urriaren 5/6ean Artazun eta ondotik, Arrosara etorriko liratezkela 2025ko urriaren 4/5ean.

Elkar ikusiko dugulakoan, onar ezkitzue gure agurrik goxoenak eta adeitsuenak.

Arrosako auzapeza,

Beñat ARRABIT

